

## ATARIKOA

1994ko uztailean hasi zen liburu honen historia.

Rikardo Arregiren heriotzeko 25. urtea zela eta, Larramendi Kultur Bazkunako ordezkariak Jakin-era jo zuten, zer egin zitekeen elkarrekin pentsatzeko. Elkarrekin erabaki genuen Rikardo Arregiren gaurkotzea bi fasetan egin zitekeela.

Urteurrenaren inguruan antolatu ziren bi mahainguru Andoainen, bere figura eta bere obra herri mailan ezagutarazteko.

Sakonago, eta mende laurdenak eskaintzen duen talaiaitik, Rikardo aztertzea ere komenigarri zitekeela eta, eskutan duzun lan hau jarri genuen martxan. 1995eko irailean jaso genuen Larramendi Bazkunaren enkargua.

Hirutan banatu genuen egitasmoa, eta horrelaxe, hirutan, dago liburua ere egituratua: gizakia, garaia eta obra.

Lehen zatian, Rikardoren bizitza eta emaitzak biltzen dira, laburrean. Batetik, Rikardo anaiaaren biografia egiten du Begoñak. Bestetik, Rikardoren bibliografia, edo artikulu eta lan guztien bilduma, egiten du Joan Mari Torrealdaik. Eta honen guztiaren osagarri gisa, ez da interesik gabea, heriotz ondoko 25 urteetan gure pertsonaiari buruz esan eta idatzi direnak biltzea. Bilketa honek barreiaturik dauden materialak elkarren ondoan jartzea du asmo nagusi. Lan hauetatik batzuk aldizkarietan agertu dira, edo egunkarietan; eta badira argitaragabeak ere, hitzaldi nahiz artikulu. Omenaldi itxura dute batzuek, azterketa-eitea beste batzuek. Berdin dio. Kuestioa da Rikardo interesatua dagoenari dokumentazio sakabanatu hau eskura jartzea.

*Liburuak bigarren zati garrantzitsu bat du, Rikardo Arregiren garaia eta gizartea aztertu nahi dituen. Paulo Iztuetak eta Beltzak 60-70 urteetan zertan ziren mugimendu sozial eliztarrak eta politiko-sozialak aztertzen dituzte. Gaurko distantziatik maiz ez da erraza garai hura ulertzea, orduko gorabeherak, orduko eztabaidak eta auziak, nahiz eta gure ustetan urte haiek erabakiorrak izan abertzaletasun modernoaren*

historian. Azken puntu honixe heltzen dio Joseba Arregik, hots, Rikardok bere garaian abertzaletasun modernoaz hasi zuen gogoeta zertan izan den geroztik. Idazle bakoitzak, bistan da, bere ikuspegitik eta 25 urte ondotik etortzeak ematen duen abantailarekin heldu dio gaiari.

Eta hirugarren zatian, Rikardoren obraren eta pentsamenduaren ur sakonetan murgiltzen dira Joseba Arregi eta Joxe Azurmendi. Rikardok bere garaian hasi zuen abertzaletasun modernoaren gogoetak zein eboluzio izan zezakeen geroztik aztertzen du Joseba Arregik. Hirutan banatzen du azterlana: Rikardoren pentsakeraren aurkezpena; Rikardoren pentsamenduaren argudio estrukturala; eta, hirugarren, Rikardoren pentsamenduak har zezakeen bidea. Joxe Azurmendik errepasso osoa ematen dio Rikardoren pentsakerari bere obra osoan zehar: luze eta sakon, zehatz eta mehatz, aztertzen du Rikardoren pentsakera filosofikoa, politikoa eta kulturala.

Lanon mamia ikusita, uste dut hiru helburu bederen ongi betetzen dituela liburuak: Rikardo Arregiren garrantzia azpimarratzea; Rikardoren garaia ezagutaraztea; eta hirugarren, gaurko kategorietatik Rikardoren ekarria neurtu eta baloratzea. Eta oroz gain, Rikardo Arregi hobeto eza-gutzea.

JOAN MARI TORREALDAI  
Usurbil, 1996. 05. 01